

# KARAKATE, SUMENDI ITZALIA

EUSKAL HERRIKO BEGIRATOKI APAL BEZAIN IZUGARRIA

TESTU ETA ARGAZKIAK



Inma Mugerza Perelló  
(Elgoibar, 1970)

Geologian doktorea eta mendizale amorratua txiki-txikitatik, naturak ematen dio behar duen energia. Hogeitabat urterekin Euskal Mendizale Federazioaren ehun mendien zerrendaren partaide egin zenetik, ez dio mendian ibiltzeari utzi. Bere jakin-egarriari, bidaiatzeko zaletasunari eta abentura-gurari esker, era askotako paisaiak eta mendiak (Euskal Herria, Pirinioak, Cabo Verde, Atlas, Alaska...) ezagutzeko eta gozatzeko aukera izan du. Egun, bere lanaz aparte, geologiaren dibulgazioan dihardu.



Kuxin-labak Gizaburua trikuharria koakutzen den lekutik gertu

Ez goaz kontinente urrunetara eta ez gara 1000 metrotik gora igoko. Etxe ondoan, aurrez-aurre, mendi ezagun, deigarri eta maitatua. Hamaika aldiz igo dugu, handik eta hemendik, urte-sasoi guztietan, gaztetan eta ez hain gaztetan. Euritan, elurretan, eguzki izpiek kixkalita, azkar, poliki, bizikletan, raketak oinetan, eskiak jantzita... Nahiz eta pistak, gasaren parafernaliak, antenak, eta abarrek bere nortasuna bortxatu eta itxura aldatu egin duten, oraindik ere, toki izugarri politak eta liluragarriak eskaintzen dizkigu. Dudan harritzeko ahalmena aberastu egiten dit hurbiltzen natzaion bakoitzean. Mila koloretako baso misterioetsua, ura barra-barra, iraganeko izakiek utzitako aztarnak, natura eta paisaia baino askoz gehiago. Oinez zein bizikletaz, ingurune bitxia gozatu nahi dugunon altxorra.

**K**arakate-Irukurutzeta-Elosumendi mendi-kerroa Gipuzkoako ipar-ekialdean kokatuta dago, Elgoibar, Soralue eta Bergara gainetik harro altxatzen delarik. Mendikatea hainbat tontorren lerrokaduraz osaturik dago: Karakate (Kortazar izenarekin ere ezaguna), Akelarre, Pagomuneta, Atxolin, Kurutzebakarra, Irukuru-

tzeta eta Elosumendi. Karakate eta Irukurutzeta arteko lur sailari Muskurutxu (lehenago Muzkiritzu) esaten diote elgoibartarrek. Kurutzebakarra da tontor guztien artean garaiena (902 m). Ibilbide erraza eta garaiena apala baditu ere, igoerak trebetasun fisikoa eskatzen du bat bateko desnibela dela eta. Esate baterako, ton-

torreraren Elgoibarretik igo nahi izanez gero, 2,5 km-ko distantzia zuzenean 700 m-ko desnibela gainditu beharra dago. Edozelan ere, Karakateraino heldu daiteke Soraluez ateratzen den GI-3652 errepidea baliatuz. Bertatik hego-ekialderantz zabaltzen zaigun kordal ikusgarria oso toki egokia eta eroso da ibiltzeko, baita haurre-





kin joanda ere. Lehen aldiz bisitatzen duenak ezusteko handia hartzen du gailurretik dagoen panoramika ikusgarria dela eta.

Mendilerroaren alderdirik malkartsuena Maltzaga eta Karakate lotzen dituen paretak osatzen du, 700 metroko desnibelarekin. Deba ibaiak harri trinkoan egindako sekulako ebakiak naturaren handitasunaren eta boterearen ideia erakusten du, denboraren poderioz urak harri gogorra lantzeko eta hi-

gatzeko izan duen eta izaten jarraitzen duen gaitasuna. Muskurutxuk ikuspegi ederrak eskaintzen ditu: Euskal Herri ia osoko mendiez eta itsasoaz gain, egun oskarbietan hegoalderantz Kantauriar mendikatea, mendebalderantz Kantabriako mendiak, eta ekialderantz Pirinioak ikus daitezke. Inguruan pinu- eta alertze-landaketa ugari badago ere, iparraldeko magalak 3 km<sup>2</sup> inguruko azalera estaltzen duen pagadi autoktono itxi eta

ederra gordetzen du. Kordalaren goialdean, aldiz, txilardi eta belardi tapitu eta biguna hedatu da, mendizaleon gozamenerako.

---

**Karakate-Irukurutzeta-  
Elosumendi mendilerroa  
magmatik eratorritako harri  
gogorak dira (basaltoak)**

---



Goroldioak, hezetasunaren hezetasunez, basoa menderatzen du, pagoen enbor eta adarrak estaliz

Mendi-ibilbide ugari izateaz gain, inguru eder honek hainbat bitxikeria gordetzen ditu bere baitan. Ziurrenik, mendizale gehienek ez dute jakingo jatorri magmatikoa duela, sumendi-ilara bat izan zela mendiaren jatorria. Gainera, Neolitiko eta Brontze Aroaren arteko denbora-tartean altxatutako trikuharri anitzez osatuta dagoen Euskal Herriko estazio megalitiko garrantzitsuenetako bat gordetzen du bere baitan. Inguruak badu, hala ere, beste toki

batzuekin zerbait komunean. Hemen, Euskal Herriko beste leku askotan bezala, ondare ukiezina (patrimonio immateriala) galtzen ari da pixkanaka, toponimia alegia.

## GEOLOGIA

Mendizerra honen bitxikeria aipagarrietako bat bere jatorria da, nola sortu zen alegia. Duela 110 eta 80 milioi urte artean,

Euskal Herria itsas azpian zegoela, Mutriku eta Sakoneta arteko flyscha eratzen ari zen. Garai berean, Iberiar Penintsula Europatik urruntzen ari zen plaka-tektonikaren eraginez. Mugimendu horrek lurrazal kontinentalaren apurketa eta mehetzea ekarri zuen. Lurraren barnetik, sakonera handietatik, laba gorria igotzen hasi zen gainazalerantz lurrazaleko harrien artean irekitako pitzadura eta haustura handietatik. Bizkaiko Golkoaren sorreraren hasiera zen. Magma horietako batzuk bidean hoztu ziren, baina beste batzuk lurrazala zeharkatu eta itsas hondorekin topo egin zuten, urpean izugarritzko leherketa iskanbilatsuak eman zirelarik. Labak ura ukitu eta azkar hozten da, kanpoaldean zarakar fin bat osatzen delarik, baina barruan material beroa urtuta mantentzen da. Jarioaren noranzkoan luzatutako edo biribildutako poltsen antzeko egiturak sortzen dira, kuxin-labak dira. Orduan, aldapan behera doaz, biribilka, ezpondaren oinean metatu arte.

## Neolitikoan eta Brontze Aroan, paisaiaren mugarr nagusi ziren mendilerroak aukeratu zituzten hildakoak ehorzteko

Karakate-Irukurutzeta-Elosumendi mendilerroa magmatik eratorritako harri gogorak dira (basaltoak). Topografia maldatsua eta tontor garaiz osatutako talaia, paisaiaren gotorleku. Irudian beltzez marraztutako eremuak harri magmatikoak adierazten ditu. Ikus daitekeenez, harri horien gehiengoa Elgoibar-Eibar-Bergara-Zumarraga inguruan ageri badira ere, ez dira leku horretara soilik mugatzen, izan ere Bizkaian ere ikus daitezke Gernika-Fruiz inguruan.

## URA

Ezin utzi aipatu gabe mendiak erraietan gorderik duen beste altxor bat: ura. Lur azpiko inguruneari buruzko ezjakintasun orokorra dela eta, hamarkada askotan uste izan da lurpeko uren jatorriak urrunekoak, misteriosuak eta konplexuak zirela. Karakate-Irukurutzeta-Elosumendi kordalaren magaletan iturri ugari ageri dira eta beraien ura Pirinioetatik zetorrela uste izan da. Edozelan ere, ez dago horren urruti joan beharrik beraien jatorria azaltzeko. Euriak edo, hobeto esanda, prezipitazioak elikatzen ditu iturri hauek. Hau da, atmosferatik Lurraren gainazalera euri, elur edo txingor gisa erortzen den urak.

Lurruntzen ez den ura, ibai eta aintziretara iristen ez dena eta landarediak eta lurzorua xurgatzen ez dutena lurpean sartzen da, grabitatearen eraginez, bidean aurkitzen dituen materialen iragazkortasuna aprobetxatuz. Harri bolkanikoetan sortutako pitzadurek eta poro txikiek lagungarri suertatzen dira eta erraztu egiten diote bidea gainazaletik sartzen den urari. Ura mantso-mantso mugitzen da arroketan zehar bere ibilbidea eginez eta mendiko iturri txikiak sortzen ditu. Pol-Pol iturria adibide bat besterik ez da. San Lorentzo errekaen jaiotza ere lur azpiko uren ibilbidearen ondorioa da.

### DOLMENEN IBILBIDEA

Neolitoan eta Brontze Aroan, paisaiaren mugari nagusi ziren mendilerroak aukeratu zituzten hildakoak ehorzteko eta beren lurraldea seinalatzeko. Elosua-Soraluzeko estazio megalitikoak osatzen duten trikuharriak eta tumuluak ondare horren zati dira, eta Karakateko, Irukurutzetako eta Agerreburoko tontorrek marrazten duten mendilerroan sakabanatuta daude.

Deba haraneko arkeologia aztartzerakoan, garrantzi handia izan du estazio megalitiko honek. Bere historiaurreko ondarea egun Bergara, Azkoitia, Antzuola, Elgoibar eta Soraluze udalerrietan sakabanatuta dauden 16 monumentuk osatzen dute (10 tumuluk eta 6 trikuharrik). Monumentu horietako gehienak J. M. Barandiaranek aurkitu zituen, 1920tik 1921a bitartean, eta berak induskatu zituen, T. Aranzadiren eta E. Egurenen laguntzaz. Zorixarrez, monumentu horietako gehienak arpilatu egin zituzten, lehenengo ikerketak egiten hasi aurretik. Hildakoak ehorzteko hilobi kolektiboa da trikuharria. Zutik kokatutako lauzaz osatuta dago, eta, aldi berean, lauz horiek beste lauz bati eusten diote, estalki modura; guztiek hilobi-ganbera osatzen dute. Ganbera hori tumulu batez edota harri mordo batez estalita dago. Mota honetakoa da Gizaburuako trikuharria. Bertan aurkitu dira, beste gauza batzuren artean, zeramikak, suharria eta giza hezurak.

### Dolmenen Ibilbidea balioan jartzeko, Aranzadi Zientzia Elkarteak Irukurutzetako trikuharriaren indusketa lanak egin ditu

Aipamen berezia merezi du Arribiribiletako iruinarririk. 1921. urtean, J. M. Barandiaranek monolito hau mugarri bat zela uste izan zuen.

Ondoren, trikuharri baten estaldura zela uste izan zen, baina 2012an burututako indusketari esker, iruinarririk bat zela jakin zen azkenik. Iruinarririk izaera totemikoa dute. Hortaz, funtzionaltasun berezia dute paisaiaren mugarri modura. Uste denez, harriz egindako gizakia-aren eraikuntza-mota zaharrena izan daiteke. Menhir (iruinarririk) hitzak jatorri bretoaia dauka eta "harri zutitua" esan nahi du. Mota honetako harri zutitua kultura askotan ageri dira eta guztietan antzeko funtzioa dute: lurralde-markatzaileak, zentzu erlijiosoarekin batzuetan, identitate-zentzuarekin beste besteetan edo tokiaren zentzu sinbolikoarekin, tribu edo klan zentzuarekin.

Estazio megalitikoak Sailkatutako Kultura Ondasun izendatuta dago, Monumentu Multzo kategoriarekin. 2012 urteaz geroztik, Bergarako, Elgoibarreko eta Soraluzeko udalek Dolmenen Ibilbidea berreskuratzeko eta balioan jartzeko proiektua ari dira sustatzen, Debegesa garapen agentziarekin eta Debemen elkartearekin elkarlanean. Pasa den 2018an Karakate-Irukurutzetako mendilerroan hainbat jarduera burutu dira. Horien artean, nabarmentzekoa da Kerexetaegia Hegokoa trikuharriaren berreraikitzea. Dolmenen Ibilbidea balioan jartzeko proiektuaren baitan, Aranzadi Zientzia Elkarteak Irukurutzetako trikuharriaren indusketa lanak egin ditu. 2018an ere, Bergarako, Elgoibarreko eta Soraluzeko udalek, Debegesa Garapen Agentziaren lankidetzan,

doako bisita gidatuak eskaini dituzte Dolmenen Ibilbidearen balio arkeologikoa, zein paisaia-balioa ezagutzera emateko.

### TOPONIMIA

Izen zaharrak galtzen edo ahazten ari badira ere, orri hauek erabili nahi ditugu Muzkiritzeko mendilerroaren toki-izenak edo toponimia gogorarazi eta berreskuratzeko, dagoen ondare ukiezina galdu ez dadin. Egundak Muskurutzeko izenez ezaguna den mendilerroa beste izen bat izan zuen. Elgoibar eta Soraluze artean dagoen mendilerroari Muzkiritzeko izena jarri zioten Erdi Aroan. Azken hamarkadetan, ostera, beste toponimo batzuk zabaldu dira jende artean, hala nola Kortazar, Karakate (Elgoibartarrentzat) edo Muneta (Soraluzetarrentzat). Gaur egun antena edo Karakateko komunikazio-zentrotik hasten den kordala, hiru muino edo mendixka esanguratsu ditu: Akiladar, Atxolin eta Irukurutzeta, azken hau Mazelaegi kortako lautadan kokatua.

Komunikazio-zentrotik behera, mendebalderantz, Peñas de Muneta izenez ezaguna den harri-multzoa dago eta bertan, 1954an jarritako gurutzea. Gauza bera gertatzen da baserriekin ere. Asko dira Muzkiritzuren magalean dauden baserriak, zeintzuk beste izen batzuekin ezagutu izan diren, hala nola Upaegigoiti (orain Upaigoiti) edo Basartesoroeta (orain Basueta).

Irukurutzetako tontorra





Karakateko gailurretik hegoekialderantz belardia, erdian Atxolin mendia

## HAUSNARKETAREN TARTEA

Ez da lehen aldia. Tristura eta haserrea sentitu ditut berriz eta ez da gutxiagorako ere. Egurretan dabiltzan tonelada handiko kamioiak ehunka metroko orbain sakonak egin ditu Muskurutzuko azal sentikorrean. Baina, ez al da babes bereziko gunea? Behin eta berriro galdetzen diot nire buruari nola baimendu daitekeen makinaria astuna erabiltzen duen basogintza erasotzailea, oso hauskorra den eta babes bereziko erregimen juridikoa duen Babes Berezi Eremu batean. Honi guztiari ez diot ikusten ez bururik ez hankarik. Ezinezkoa da. Basogintza mota hau Babes Berezi Eremuan ez datoz bat edo niri hala iruditzen zait behintzat. Orain ere, interes ekonomikoa ingurunearen gainetik? Lurraldearen kudeaketa gauza serioa da eta bere ondorioak ditu. Lur-sail batetan egiten dena (landatzen dena, lur-mugimenduak...) eragina dauka lur-sail horretan ezezik, arroaren beste leku batzuetan. Ibaien erantzuna euriteen aurrean, uholdeen gordintasuna, lubiziak eta beste hainbat gertakari luraren kudeaketak baldintzatuta daude neurri handi batean.

